

Izen-abizenak :

Data

1.- Non dago Lezaeta?

- a- Tolosatik Nafarroako bidean
- b- Ordiziatik Gasteizko bidean
- c- Tolosatik Donostiako bidean

2.- Aukeratu erantzun zuzena:

- a- Alde batetik errepideak eta bestetik mendiak mugatzen dute Lezaeta
- b- Alde batetik errepideak eta bestetik errekek mugatzen dute Lezaeta
- c- Alde batetik lantegiak eta bestetik mendiak mugatzen dute Lezaeta

3.- Erantzun zuzena aukeratu:

- a- Lur ugariko herria da
- b- Dituen lurak Beteluk emandakoak dira
- c- Lur gutxiko herria da

4.- Non dago eskola?

- a- Baserri batean
- b- Elizako bigarren pisuan
- c- Kale gorrian

5.- Zenbat biztanle bizi dira Lezaetan?

- a- Bi familia
- b- Bi biztanle
- c- Bi mila biztanle

6.- Biztanle baten osaba non ibili zen herrira itzuli aurretik?

- a- Afrikan
- b- Iruñan
- c- Amerikan

7.- Zer egin zuten herriko biztanle gehienek?

- a- Jaiak antolatu
- b- Herri handietara joan
- c- Diskoteka handi bat eraiki

LEZAETA, bi biztanleko herria

Tolosatik Nafarroako bidean Betelu pasa, eta Azpirotzera iritsi baino lehen aurkitzen da Lezaeta.

Errepideari bizkarra emanaz dago eta ia konturatu gabe pasa daiteke albotik, harrizko etxe pare bat eta karretera ertzean kokatzen den indikadorea baitira bidaiariari Lezaeta herriskak egiten dion agur bakarra.

Alde batetik karreterak eta bestetik mendiak mugatzen dute Lezaeta. Tartean etxe multzoak bata bestearen ondoan kokatuta. Lur gutxiko herria da. Apika hortik etorriko zitzaion jendeari aldegitoko beharra. Lanerako toki eskasa dagoen lekuan ezin zen plazarik egin, beraz, eliza eta eskola txikia dira etxebizitzaz aparte dauden biltoki bakarrak.

Elizako bigarren pisuan eskolako gela dago. Lehen, haurren ahotsetan abezedarioa entzuten zen leku horretan isiltasuna eta hautsa dira nagusi. Zurezko eskailera zaharkituetatik kanpandorre nimiñora igotzen da. Han daude, herriari begira, bi kanpai mutu eta erloju dotore bat, martxan jartzera zein etorriko zain.

Alabaina, erabat hondatuta dauden etxe batzuen ondoan beste zenbait etxe bakan ikusten dira zurituta eta teilatu berriarekin. Berri horietako batean bizi dira herri honek dituen bi biztanle bakarrak: Patxi Otegi eta bere osaba, Ameriketara ibilitakoa. Beste guztiek, pixkanaka-pixkanaka herri handietara jo dute, batzuek hurbil, beste batzuek, berriz, urrunago.

Jaiegin-etik egokitua